SEGURAKO UDALA

**SEGURAKO UDALA** | **AYUNTAMIENTO DE SEGURA**

**Segurako Udaleko praktikaldiari buruzko barne-jarraibidea**

Deitutako eta etorkizunean egin daitezkeen hautaketa-prozesuen garapenaren aurrean, Segurako Udalean beharrezkotzat jo da prozesu horien parte den praktikaldia barne- mailan arautzea.

Praktikaldia, alde batetik, baliagarria izan beharko da Segurako Udalean sartzen den pertsonak Udalaren beraren inguruko funtzionamenduari eta lan- baldintzei buruzko informazioa jasotzeko.

Era berean, denbora horretan beteko duen lanpostuaren inguruko informazio zehatza jasoko du, bere lana ondo egin ahal izateko. Gainera, Laneko Arriskuen Prebentzioari, teknologia berriei eta hizkuntza politikari eta berdintasunari buruzko edukiak ere jasoko ditu.

Bestalde, praktikaldiaren helburua izango da pertsona horien gaitasuna konprobatzea, betiere, udal lan-taldean integratu eta egokitu zaien lanpostua betetzeari dagokionez. Bigarren aspektu honen ingurukoak dira jarraibide hauek.

**Instrucción interna sobre el periodo de prácticas en el Ayuntamiento de Segura**

Ante el desarrollo de los diversos procesos selectivos convocados y que se puedan desarrollar en el futuro, en el Ayuntamiento de Segura se ha considerado necesario regular a nivel interno el periodo de prácticas que forme parte de dichos procesos.

El periodo de prácticas, por un lado, debe servir para que la persona recién incorporada en la organización del Ayuntamiento sea informada suficientemente sobre el propio Ayuntamiento, así como de sus condiciones laborales.

Asimismo, durante este tiempo recibirá la información específica del puesto que ocupa para posibilitar el desempeño de su labor adecuadamente. Además, contendrá también aspectos relativos a la información en materia de Prevención de Riesgos Laborales, en materia de nuevas tecnologías y en materia de política lingüística y política de igualdad.

Por otro lado, el periodo de práctica tiene por objeto comprobar la aptitud de las personas aspirantes a integrarse en la plantilla municipal en cuanto al desempeño del puesto de trabajo al que ha sido adscrita. Es este segundo aspecto al que va dirigida la presente instrucción.

Horrela izanik, praktikaldia arautu egin da Segurako Udalean burutzen diren hautaketa-prozesuak arautzen dituzten xedapenen bidez.

En este sentido, el periodo de prácticas ha sido objeto de regulación en las diferentes disposiciones normativas que resultan de aplicación a los procesos selectivos que se lleven a cabo en el Ayuntamiento de Segura.

5/2015 Lege Errege Dekretuaren bidez, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartu zen, eta, horren arabera, funtzio publikora sartzeko probak praktikaldia gainditzearekin osatu daitezke (61.5. artikulua).

La Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, 30 de octubre, prevé que las pruebas para acceso a la función pública puedan completarse con la superación de periodos de prácticas (61.5).

896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa 4. artikulua, laugarren paragrafoa.

El Real Decreto 896/1991, de 7 de junio en su artículo 4, párrafo cuarto.

11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoa. Horren 76. Artikuluan praktikaldia gainditzeko aukera ezarri da, hautaketa- prozesuaren fase moduan. 7. ataleko azken pragrafoan hauxe esaten da, gainera:

La Ley 11/2022, de 1 de diciembre de Empleo Público Vasco, que establece en el artículo 76 la posibilidad de la superación de un periodo de prácticas como una fase más del proceso selectivo. En su apartado 7, último párrafo establece, además:

«Eusko Jaurlaritzak egingo du euskal administrazio publikoetako praktikaldi edo probaldi hori egiteko inguruabarren eta baldintzen erregelamenduzko garapena, eta, horretarako, Enplegu Publikoa Koordinatzeko Euskadiko Batzordeak horri buruz adierazitako irizpideak eta jarraibideak beteko ditu.»

«El Gobierno Vasco procederá al desarrollo reglamentario de las circunstancias y condiciones en las que deberá llevarse a efecto dicho período de prácticas o de prueba en las administraciones públicas vascas, conforme a los criterios y directrices manifestados al respecto por la Comisión de Coordinación del Empleo Público de Euskadi»

1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 22koa, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

El Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 6. artikulua.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. eta 7. artikuluak.

2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena.

Orain arte erreglamenduzko garapenarik egon ez denez, ulertzen da beharrezkoa dela Barne jarraibide hauen bidez jasotzea Segurako Udalean praktikaldiak arautzeko aspektu eta baldintzak.

**1. Artikulua.- Helburua**

Praktikaldiaren helburua hauxe da: egiaztatzea ea izangaiak gaitasuna duen karrerako funtzionario gisa sartu nahi duen kategoriako funtzioak betetzeko.

Barne-jarraibide honen helburua aldi horiek arautzea eta egoera horretan dauden langileen baldintzak ezartzea da, hautaketa-prozesu bakoitzaren oinarriek berariaz zehazten ez dutenari dagokionez.

**2. Artikulua.- Aplikazio-eremua**

Jarraibide hau Segurako Udaleko praktiketako funtzionarioei aplikatuko

El artículo 6 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del sector Público.

Los artículos 5 y 7 de la Ley 19/2019, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Real Decreto 2568/1968, de 28 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Ante la falta de desarrollo reglamentario hasta la fecha, se entiende que es necesario recoger mediante esta Instrucción interna los aspectos y condiciones que regirán este periodo en el Ayuntamiento de Segura.

**Artículo 1.- Objeto**

La fase de prácticas tendrá como finalidad comprobar la aptitud para el desempeño de las funciones propias de la categoría en la que se aspira a ingresar como personal funcionario de carrera.

El objeto de la presente Instrucción es regular el procedimiento para el desarrollo de estos periodos y las condiciones que afectan al personal en esta situación, en todo aquello que no se establezca específicamente en las bases reguladoras de cada proceso selectivo.

**Artículo 2.- Ámbito de aplicación**

zaie, Segurakoko Udaleko Udaltzaingoari halakorik badago eta horiek beren araudi espekifikoaren arabera arautzen baitira.

Esta instrucción se aplicará al personal funcionario en prácticas del Ayuntamiento de Segura, excepto a aquellos pertenecientes al Cuerpo de policía local del Ayuntamiento de Segura, si los hubiere, que se rigen por su normativa específica.

Era berean, lan-kontratudun langileei ere aplikatuko zaizkie, lan arloko legeriaren aurkakoak ez diren aspektuetan.

Asimismo, le será de aplicación esta Instrucción al personal laboral, en todo aquello que no contravenga la legislación laboral.

Oinarriek probaldi bat edo praktika-aldi bat ezartzen duten hautaketa-prozesu guztietan aplikatuko da, baldin eta aldi hori ez bada hasi instrukzio hau indarrean sartzen denean, eta atzeraeraginez aplikatu ahal izango zaie instrukzio hau indarrean sartzen den urte berean hasitako praktikaldi edo proba-aldiei.

Se aplicará en todos los procesos selectivos en los que las bases establezcan un periodo de prueba o prácticas siempre que dicho periodo no haya sido iniciado a la entrada en vigor de esta Instrucción, pudiendo aplicarse retroactivamente a los periodos de prácticas o prueba iniciados en el mismo año de entrada en vigor de la presente Instrucción.

**3. Artikulua.- Iraupena**

Deialdi espezifikoaren oinarriek beste epe bat ezartzen dutenean izan ezik, kasu horretan epe hori aplikatuko baita, praktikek iraupen hau izango dute:

- A Taldea: 6 hilabete.
- C Taldea 3 hilabete.
- Lanbide-taldeak: 3 hilabete.

**Artículo 3.- Duración**

Salvo que las bases de la convocatoria específica estableciesen un plazo distinto en cuyo caso se aplicará el mismo, las prácticas tendrán la siguiente duración:

- Grupo A: 6 meses.
- Grupo C: 3 meses.
- Agrupación profesionales: 3 meses.

**4. Artikulua.- Prozedura**

a- Funtzionario lanpostuetarako praktikaldia eta lan-kontratudun langileentzako probaldia beti egingo dira batzorde edo pertsona ebaluatzaile baten tutoretzapean.

**Artículo 4.- Procedimiento**

a- El periodo de prácticas para las plazas de personal funcionario y el periodo de prueba para las plazas de personal laboral se realizarán siempre bajo la tutoría de una persona o

Pertsona horiek karrerako funtzionarioak edo lan- kontratudun langile finkoak izango dira.

comisión evaluadora que reunirá la condición de funcionario/a de carrera o personal laboral fijo.

Giza Baliabideko zuzendariak edo idazkaria kontu hartzaile egingo dio Alkatetzari pertsona ebaluatzailea edo batzorde ebaluatzailea izendatzeko proposamena.

Será la persona responsable de RR.HH. o la o el secretaria/o interventor/a quien eleve a la Alcaldía la propuesta de nombramiento de la persona evaluadora o Comisión Evaluadora en cada caso.

b- Tutore/ebaluatzaile izendatutako pertsonak ahal izanez gero bost urteko zerbitzua egina izango dute eta praktikak egiten dituen pertsonaren arlo berean eduki beharko dute lanpostua. Hierarkiari dagokionez, ahal dela, izangaiak betetzen duen lanpostuaren hurrengoa (goranzko hierarkian) betetzen duen pertsona izango da tutorea. Edonola ere, beste kategoria bat izatekotan, lanpostu horretarako behar den maila bereko titulazioa edo goragokoa izan beharko du.

b- La persona nombrada tutor/a evaluadora deberá tener preferentemente, al menos cinco años de servicio y estar destinada en la misma área en la que la persona aspirante desarrolle las prácticas. Preferentemente será quien desempeñe el puesto inmediato superior jerárquico del puesto que desempeñe la persona aspirante. En todo caso, de no pertenecer a la misma categoría, deberá ostentar una categoría para cuyo ingreso se requiera una titulación igual o superior a la de acceso del puesto en cuestión.

c- Batzorde Ebaluatzaile bat izendatzekotan, honela egongo da osatuta:

c- En caso de la designación de una Comisión Evaluadora:

— Gutxienez 3 pertsona.

— Estará compuesta por al menos 3 personas.

— Ebaluatzen ari diren lanposturako behar den maila bereko titulazioa edo goragokoa eskatzen duen kategoriakoak izan beharko dira kideen erdia baino gehiago.

— Más de la mitad de sus componentes deberá ostentar una categoría para cuyo ingreso se requiera una titulación igual o superior a la del puesto objeto de evaluación.

— Batzordearen osaeran, gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da.

— Su composición ha de ser equilibrada asegurando la presencia de mujeres y hombres con

— Gutxienez pertsona batek edukiko du izangaiari eskatzen zaion maila berdineko hizkuntza eskakizun edo goragokoa.

Aurreko punturen bat betetzea ezinezkoa denean, ez-betetzea arrazoitu egin beharko da, giza baliabideen arloaren justifikazio-txostenaren bidez.

d- Hautaketa-prozesuaren oinarriek hala ezartzen badute, ikuskatzaile bat izendatuko da ebaluatzaileari laguntzeko eta haren berri emateko.

e- Tutore/Batzorde Ebaluatzailearen funtzioak hauek izango dira:

1. Praktikaldian dagoen funtzionario edo probaldian dagoen lan-kontratudun langilea orientatu eta bideratzea, beharrezkoa balitz bere jokabidea berbideratuz.

2. Txosten bat egin beharko du, adierazteko ea hautagaia egokia den kidego, eskala eta talde profesional bakoitzari dagokion lanpostuari edo lanpostu- multzoari dagozkion funtzioak betetzeko. Txosten hori jarraibide hauekin batera doan ereduaren araberakoa izango da (I. Eranskina). Kasu bakoitzean egoki irizten zaion dokumentazioarekin osatuko da.

capacitación, competencia y preparación adecuada.

— Estará compuesta por al menos una persona con el mismo perfil lingüístico o superior que el exigido a la persona aspirante.

Cuando no sea posible el cumplimiento de alguno de los anteriores puntos deberá motivarse el incumplimiento mediante informe justificativo.

d- En el caso de que las Bases del Proceso Selectivo así lo establezcan, se nombrará una persona supervisora que apoye e informe a la persona evaluadora.

e- Las funciones de la persona Tutora/Comisión Evaluadora serán:

1. Orientar y dirigir profesionalmente a la persona funcionaria en prácticas o laboral en periodo de prueba, reconduciendo su situación en el caso de que fuera necesario.

2. Elaborar un informe sobre la persona candidata para ejercer las responsabilidades propias de los puestos de trabajo o agrupación de puestos de trabajo que correspondan a cada cuerpo, escala, agrupación profesional funcionario sin requisito o grupo profesional convocado. Este informe se ajustará al modelo que figura como Anexo I a esta Instrucción que podrá ser complementado con la documentación que estime conveniente en cada caso.

f- Tutorearen eta gainbegiratzen duen pertsonaren izendapenari abstentzio eta ez onartze arrazoiak aplikatu ahal izango zaizkio, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen (urriaren 1ekoa) 23 eta 24 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

f- A la designación del tutor/a y supervisor/a o miembros de la Comisión Evaluadora serán aplicables las causas de abstención y recusación previstas en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

g- Praktikaldiak iraun bitartean tutoretza hori garatzeko zirkunstantziaren bat sortuko balitz, GGGBB buruzagitzak edo, hala badagokio, idazkari kontu-hartzailea beste tutore bat izendatuko du, adierazitako irizpideen arabera. Jarraibide hauetan jasotako moduan jardungo litzateke.

g- Si durante la fase de prácticas se produjera alguna circunstancia que impidiera el desempeño de la tutoría asignada, la persona responsable de RR.HH. o, en su caso, la o el secretaria/o interventor propondrá el nombramiento de otro tutor/a de acuerdo a los criterios señalados.

h- Praktikaldia bukatuta, Tutore izendatutako pertsonak (edo Batzorde Ebaluatzaileak) txostena egingo du.

h- Finalizado el periodo, la persona designada Tutora(o la Comisión Evaluadora) emitirá su informe.

— Praktikaldia gainditzen duten pertsonek karrerako funtzionario izendatuko dira edo lan-kontratua formalizatuko dute.

— Bestela, Alkatetzak arrazoitutako ebazpen baten bidez ez gaitzat joko dira. Aurretik entzunaldia eskainiko da eta tutorearen txostena (edo batzorde ebaluatzailearena) aztertu ahal izango ditu eta, ondorioz, karrerako funtzionario edo lan-kontratudun langile izateko eskubide guztiak galduko dira.

— Quienes superen este periodo serán nombrado/as funcionarios/as de carrera o formalizarán el contrato laboral fijo correspondiente.

— En caso contrario, serán declarados/as no aptos/as por resolución motivada de la Alcaldía, con trámite de audiencia previa y exhibición del informe del tutor/a (o de la Comisión Evaluadora) y perderán, en consecuencia, todos los derechos para el nombramiento como funcionario/a de carrera y para la contratación de personal laboral fijo.

**5. Artikulua.- Praktikak baliozkotzea**

**Artículo 5.- Convalidación de las prácticas**

Praktikaldia baliozkotu ahal izango zaie aldez aurretik karrerako

Podrá convalidarse la realización de la fase de prácticas a aquellos/as

funtzionario edo bitarteko funtzionario gisa edo lan- kontratuko langile gisa arlo berean kategoria horretan praktikak egiteko esleitutako lanpostuaren berezko eginkizunak bete dituzten praktiketako funtzionarioei, praktikak modu jarraituan egiteko ezarritako denboran gutxienez, betiere ondoren zerrendatzen diren baldintzak betetzen badira.

funcionarios en prácticas que previamente hayan desempeñado de manera efectiva, como funcionario/a de carrera o interino/a o como personal laboral las funciones propias del puesto asignado para la realización de las prácticas en dicha categoría en la misma área durante al menos el tiempo establecido para la realización de las mismas de manera continuada, siempre que se cumplan los requisitos que a continuación se enumeran.

Baliozkotzea izangaiak eskatuta hasi ahal izango da praktiketako funtzionario edo praktiketako langile finko izendatu ondoren eta Segurako Udaleko Alkatetzara edo, hala badagokio, alkateordeari edo zinegotzi delegatuari zuzenduko zaio dagokionaren arabera.

La convalidación podrá iniciarse mediante solicitud por parte de la persona aspirante una vez nombrada funcionaria en prácticas o personal fijo en prácticas y se dirigirá a la Alcaldía del Ayuntamiento de Segura o en su caso al teniente alcalde o concejal delegado, según proceda.

Baliozkotzeko baldintzak betetzen badira, arloko arduradunak edo hierarkian gorago dagoen pertsonak eta, ezin bada, idazkariak txosten arrazoitu bat egin beharko du, gutxienez jarraibide honen I. eranskinean jasotako ereduari jarraituz.

De cumplirse los requisitos para la convalidación, la persona Responsable del Área o superior jerárquica y, si no fuera posible, la secretaria o el secretario, deberá emitir un informe motivado que seguirá al menos, el modelo que contiene el anexo I de la presente instrucción.

Txostenean oinarrituta, praktikak baliozkotzeko proposamena eta, beraz, karrerako funtzionario izendatzeko proposamena edo lan-kontratu finkoa formalizatzeko agindua, ebazteko, Alkatetzari edo hala badagokio, alkateordeari edo zinegotzi delegatuari dagokionaren arabera.

En base al informe se elevará propuesta de convalidación de prácticas y por tanto, de nombramiento como funcionario/a de carrera u orden de formalización de contrato laboral fijo para su resolución, a la Alcaldía o en su caso al teniente alcalde o concejal delegado, según proceda.

**6. Artikulua.- Praktikak etetea eta atzeratzea**

Praktiketako funtzionarioa 15 egunetik gorako aldi batez (jarraian edo etenda) aldi baterako ezintasun-egoeran badago, amatasun/aitatasun-lizentzia badu, edo praktikaldiaren garapen arrunta eragoztea justifikatzen duen beste edozein arrazoi badu, oporraldiak salbu, praktikaldia luzatzeko eskatu beharko dio Funtzio Publikoa arloari.

Luzatzeko baimena Alkatetzak edo hala badagokio, alkateordeari edo zinegotzi delegatuari dagokionaren arabera emango du. Luzapena bera eragin duen gertakariak irauten duen denboran luzatuko da praktikaldia eta funtzioak betetzea eragozten duten zirkunstantziak desagertutakoan egingo da.

Praktiketan dagoen funtzionarioak, bai eta dagokion arloko arduradunek ere, GGBB edo idazkari kontuartzaileari sailari jakinaraziko diote 15 egunetik gora (jarraian edo etenda) lanpostuan ez egotea eragiten duen edozein egoera.

Praktikaldian lanera ez joateak, aldi hori atzeratu eta konpentsatzen denean salbu, automatikoki hautaketa- prozesutik ateratzea ekarriko du.

**Artículo 6.- Suspensión y aplazamiento de las prácticas**

En los casos en los que la persona nombrada en prácticas se encuentre, durante un periodo superior a 15 días (de forma continuada o discontinua) en situación de incapacidad temporal, licencia por maternidad/paternidad o cualquier otra causa justificativa que le impida el desarrollo ordinario de la fase de prácticas, a excepción del periodo vacacional, deberá solicitar al área correspondiente la prórroga de la fase de prácticas.

La autorización de prórroga será emitida por la Alcaldía, Teniente Alcalde o Concejalía Delegada, según proceda. La prórroga se extenderá por idéntico plazo al de la duración del hecho causante y se realizará una vez desaparecidas las circunstancias impeditivas.

Las personas afectadas así como las Responsable del Área correspondiente pondrán en conocimiento de RR.HH. o secretaría intervención cualquier situación que suponga ausencia del puesto de trabajo superior a 15 días (de forma continua o discontinua).

La falta de asistencia durante el periodo de prácticas, salvo que se aplace y se compense mediante Resolución de Alcaldía, o teniente alcalde o concejal delegado, según proceda, supondrá la automática exclusión del proceso selectivo.

**7. Artikulua.- Ordainsariak eta oporrak**

Praktiketako funtzionarioen edo probaldian dauden lan-kontratudun langileen alta egingo da Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean. Betetzen duten lanpostuari dagokion ordainsaria jasoko dute, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 127. Artikuluaren arabera.

Praktiketan dauden funtzionarioei zerbitzu moduan kontatuko zaie praktikaldia, dagokien aparteko paga ordaintzeari dagokionez. Emandako zerbitzuak aitortzeari dagokionez, behin hautaketa-prozesua gaindituta dagoenean kontabilizatuko da.

Praktiketan dauden langileek proportzioan dagozkien egunak hartu ahal izango dituzte, bai praktikaldian zehar, betiere zerbitzuaren beharrizanak kontuan izanda, baita ondoren ere, behin praktikaldia gaindituta, hala badagokio, dagokion urteko egutegiak onartzen dituen Alkatetza Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

**8. Artikulua.- Lan-poltsatik behin betiko baja ematea**

Praktikaldia gainditzen ez dutenak deialditik sortutako lan-poltsan behin- betiko bajako egoerara pasatuko dira.

**Artículo 7.- Retribuciones y vacaciones**

Las personas aspirantes nombradas como funcionarias en prácticas o el personal laboral en periodo de prueba, serán dadas de alta en el Régimen General de la Seguridad Social. Percibirán las retribuciones correspondientes al puesto que desempeñan, según lo establecido en el artículo 127 de la Ley 11/2022 de 1 de diciembre de Empleo Público Vasco.

A las personas funcionarias en prácticas se les computará el periodo de prácticas como tiempo de servicio efectivamente prestado, a efectos del abono de la paga extraordinaria que les pudiera corresponder. A efectos de reconocimiento de servicios prestados, será contabilizado una vez superado el proceso selectivo.

El personal en prácticas tendrá derecho a disfrutar de los días que proporcionalmente le correspondan, bien durante la fase de prácticas, condicionado a las necesidades del servicio, bien posteriormente, una vez superado el mismo, en su caso, todo ello conforme a lo que viene previsto en el Decreto de alcaldía que apruebe los calendarios del año correspondiente.

**Artículo 8.- Baja definitiva de la Bolsa de Trabajo**

Las personas que no hayan superado el periodo de prácticas pasarán en la bolsa de trabajo derivada de la

convocatoria en la situación de Baja definitiva.

**9. Artikulua.- Hautaketa-prozesutik kanporatzea**

Hautaketa-prozesutik kanporatzeko arrazoia izango da Euskal Enplegu Publikoaren Legean larri edo oso larri moduan sailkatutako arau-hauste bat egitea praktikaldian, eta, ondorioz, zigortua izatea.

Seguran, 2024ko azaroaren 7an
ALKATEORDEAK

**Artículo 9.- Exclusión del proceso selectivo**

Será causa de exclusión del proceso selectivo la imposición de una sanción por la comisión de una infracción tipificada como grave o muy grave prevista en la Ley de Empleo Público Vasco cometida en el periodo de prácticas.

En Segura, a 7 de Noviembre de 2024
EL TENIENTE DE ALCALDE

SEGURAKO UDALA

**GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA**
**GESTIÓN DE RECURSOS HUMANOS**
**I. ERANSKINA / ANEXO I**

| **PRAKTIKALDIKO EBALUAZIOA** / EVALUACIÓN PERIODO DE PRÁCTICAS | | |
|---|---|---|
| **IZENA** / NOMBRE | | |
| **LANPOSTUA** / PLAZA | | |
| **ADIERAZLEAK** / INDICADORES | **EGOKIA** / SATISFACTORIO | **DESEGOKIA** / NO SATISFACTORIO |
| **LANAREN EZAGUTZA** / CONOCIMIENTO DEL TRABAJO | | |
| **LANA BETETZEA** / CUMPLIMIENTO DEL TRABAJO | | |
| **AGINDUAK BETETZEA, DIZIPLINA** / CUMPLIMIENTO A INSTRUCCIONES SUPERIORES, DISCIPLINA | | |
| **TALDE-LANERAKO GOGOA** / DISPOSICIÓN HACIA EL TRABAJO EN EQUIPO | | |
| **LANERAKO AUTONOMIA** / AUTONOMÍA PARA EL TRABAJO | | |
| **ERABAKIAK HARTZEKO GAITASUNA** / CAPACIDAD DE TOMA DE DECISIONES | | |

| | |
|---|---|
| **DESEGOKIAK DIREN BAIMENDUTAKO ADIERAZLE-KOPURUA** NÚM. INDICADORES NO SATISFACTORIOS PERMITIDOS | |

| | | |
|---|---|---|
| **BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA** / CALIFICACIÓN DEFINITIVA | **GAI** / APTO | **EZ GAI** / NO APTO |

| | |
|---|---|
| **DATA ETA SINADURA** / FECHA Y FIRMA | |

**Honekin batera erantsi behar da behar bezala arrazoitutako txostena**
Debe acompañar informe debidamente razonado